

Goi-mailako joskintzako teknikak
Ikastaro presentziala
Hastapen-maila

Brodatua

2025.05.15—18



CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

Hastapen-ikastaro honek, Lunéville metodoaren bidez eskuz brodatzeko goi joskintzako teknika espezializatuera hurbiltzea eta praktikan jartzea proposatzen du. XIX. mendetik erabilia eta jatorriz Frantziakoa, Lunéville brodatua oso teknika preziatua da nazioarteko goi mailako joskintzan. Lunéville izeneko kakorraz bat erabiliz, harribitxiak eta beira-aleak (lentejuelak, perlak, tutuak...) eskuz brodatzean datza, txirtxilu horien bidez jantziei eta ehungintzako beste euskarri batzuei hiru dimentsiotasuna eta ehundura eskainiz.

HELBURUAK

Lunéville brodatuaren teknikan, bere aukeretan eta erabileretan lehen urratsak ematea.

Prozesuaren osotasunean Lunéville brodatuak praktikatzea eta sortzea.

Brodatze patroia baten eskema interpretatzea eta erreproduzitzea.

Metodoaren, keinuaren eta jarreraren zehaztasuna lantzea, bai eta beste brodatze teknika batzuk behar bezala ikasteko beharrezko kontzentrazioa eta diziplina lantzea ere.

PROGRAMA

1. jardunaldia

- Oinarrizko printzipioak aurkeztea. Ehunak, materialak eta erremintak
- Bastidorearen muntaketa laneko oinarrizko tresna gisa
- Kate itxurako brodatuaren teknikan lehen urratsak ematea norabide guztietan, Lunéville kakorrazaren bidez
- Hasierako eta amaierako puntadak ikastea

2. jardunaldia

- Txirtxiluak eta lentejuelak aplikatzea
- Hodiak linean eta sigi-sagan aplikatzea
- Urrezko hari metalikoa aplikatzea
- Feldroa aplikatzea

3. jardunaldia

- Vermicelli-ren teknikaren hastapenak (txirtxiluekin)
- «Á la puce» izeneko teknikaren hastapenak (lentejuelekin)

4. jardunaldia

- Vermicelli-ren teknikaren hastapenak (urrezko hariarekin)
- Aurreko jardunaldietan ikusitako eta landutako puntada guztiak aplikatzea norberaren lan proiektuan

Elisabeth Roulleau Gasbarre brodatzaile aditua da. Brodatu tradizionalaren eta goi joskintzaren artean trebatua Parisko École Lesage ospetsuan, brodatzaile profesional gisa egiten duen lana eta irakasle lana uztartzen ditu.

Parisko Atelier Cécile Henri-n egin zuen lan (Dior, Chanel eta Azzaro enpresen bildumetako sortze-lanak egiten). Gainera, hainbat herrialdetako diseinatzaile eta moda-enpresarekin egin du lan, hala nola Hermès, Chador, Alexis Mabile, Impasse 13, Didit Hediprasetyo eta Francesca Fossati-rekin.

Irakasle gisa, Lyongo *atelier*rean eta mundu osoko moda-zentroetan irakasten du. 2010az geroztik, Londresko Central Saint Martinseko irakasle gonbidatua da, eta nazioarteko beste eskola entzutetsu batzuetan ere eman ditu eskolak. Hona horietako batzuk: Parsons School of Design (New York, A.E.B), Institut Français de la Mode (Paris, Frantzia); Esmod (Tokio, Japonia); Head University of Art & Design (Geneva, Suitza); ArtEz University (Arhem, Holanda); AMD Akademie Mode & Design (Dusseldorf eta Munich, Alemania); Istituto Europeo di Design (Bartzelona eta Madril, Espainia; Milan eta Turin, Italia); eta Cristóbal Balenciaga Museoa bertan.

www.elisabethroulleau.com



Datak	2025ko maiatzaren 15tik 18ra. Aurreikusitako dedikazioa, 28 ordu.
Ordutegia	10:00-13:00/14:00-18:00
Hizkuntza	Ikastaroa gaztelaniaz eta ingelesez emango da. Irakaslea frantsesa da, ondo daki ingelesez eta gaztelaniaz ezagutza ertaina du.
Parte-hartzaileak	Gehienez 12 parte hartzaile izango dira. Parte-hartzaileak eskatutako dokumentazioaren arabera hautatuko dira, eta plazen esleipena martxoaren 3tik aurrera jakinaraziko da.
Baldintzak	Ikastaro hau egiteko ez da beharrezkoa aldez aurretik brodatze teknikei buruzko ezagutzarik izatea.
Izen-ematea	Izen ematea zabalik egongo da ikastaroa argitaratzen den egunetik otsailaren 1etik otsailaren 15era arte (hau barne, 23:59, Espainiako ordua) eta interesdunek izena emateko inprimakia bete beharko dute online. Curriculum vitae-a aurkeztu beharko da eta, horretan, modaren arloko prestakuntza eta esperientzia zehaztuko dira. Halaber, motibazio-gutun bat egin beharko da, hautagaiak jardueran duen interesa eta haren edukiarekiko lotura azaltzeko. Osatu gabeko eta epez kanpo jasotako eskabideak kanpoan geratuko dira.
Prezioa	415€. Ariketak egiteko beharrezkoak diren materialak, 95€ baloratuak, prezioaren barruan sartuta daude. Museoak kit bat eskuratuko dio parte hartzaile bakoitzari, beharrezko material guztiekin. Kitaren osagarriak: bastidorea, Lunéville kakorratza, kotoizko haria, urrezko haria, txirtxiluak, beira-aleak, lentejuelak, eta brodatu beharreko beste apaingarri batzuk. * Cristobal Balenciaga Fundazioak jaso beharreko matrikularen prezioa lehen aipatutakoa da eta bankuko gastu guztiak parte-hartzaileak bere gain onartuko ditu. ** «Museoko lagunei» dagokien deskontua matrikula egiteko unean gutxienez 2 urteko antzinasuna duten lagunei soilik dagokie.
Plaza mugatuak / Aldez aurretik izena eman behar da	
Parte-hartzaileen gutxieneko kopururik lortzen ez bada, jarduera bertan behera gelditzen dela jakinaraziko zaie interesdun guztiei, eta matrikularen zenbatekoa itzuliko da, hala dagokion kasuetan.	
Amaitzean, jardueran parte hartu izanaren egiaztatzea emango da.	
Harremanetarako	T +34 943 004 777 info@fbalenciaga.com

Aldamar Parkea 6
20808 Getaria
T +34 943 008 840
info@crislobalbalenciagamuseoa.com
www.crislobalbalenciagamuseoa.com

B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

